



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

HEZKUNTZA

1. Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak	3
2. Garraiatzeko banan banako dirulaguntzak	5
3. Enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko dirulaguntzak	6
4. Kooperatiba edo fundazio baten titulartasuna duten itunpeko sareko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak (HEZKOOP-2024)	8
5. ELEANIZTASUNERANTZ: proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan.	10
6. Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazen deialdia, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleei zuzendua	12
7. STEAM: sustapen eta bokazio zientifiko-teknikoak itunpeko ikastetxeetan	14
8. Itunpeko sareko ikastetxeei eta unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten elkarte eta federazioei zuzendutako deialdia, 2024-2025 ikasturtean "Eskola Adimentsua" programa garatzeko	16
9. Zero eta hiru urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzak	18
10. Titulartasun pribatuko haur hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako 2024-2025 ikasturterako laguntzak	19
11. Helduen hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteei (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioei, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibei	20
12. Udal musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia	22
13. %25etik gorako udal-finantzaketa duten eta ez duten Musika-Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatuentzako dirulaguntzak	24
14. Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazak sortzea	27
15. Batxilergoko Sari Berezien deialdia	28
16. Itunpeko sareko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hizkuntza indartzeko finantzaketarako dirulaguntzen deialdia	29
17. Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak	30
18. Itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntza	32



19. Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak.	34
20. LHko ikastetxe pribatu itunduen eskaintza modular malgurako dirulaguntza 2024	36
21. Dirulaguntza deialdia Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten, beren jarduera-eremuan.....	39
22. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza 2024	40
23. Irakasleak prestatzeko jarduerak IKPP.....	42
24. Erasmus +	44
25. Atzerriko hizkuntza indartzeko programa.....	46
26. Berrikuntza eta ekintzailtza proiektuak egiteko dirulaguntza 2024-2025.....	48
27. Jarduketa-ildoak 2024-2025	50
28. Kultura ekintzailea	52



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 5koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2023-2024 ikasturterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko uztailaren 5koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2023-2024 ikasturterako

1. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2023-2024 ikasturterako deialdiari buruzkoa. - Eusko Jaurlaritza

2. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2023-2024 ikasturterako deialdiari buruzkoa. - Eusko Jaurlaritza

3. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2023-2024 ikasturterako deialdiari buruzkoa. - Eusko Jaurlaritza

4. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2023-2024 ikasturterako deialdiari buruzkoa. - Hezkuntza saila

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Berdintasunean oinarritutako hezkuntzara iristeko dauden mugak edo desorekak konpentsatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023-24 ikasturteko deialdiaren onuradunak: unibertsitatez kanpoko 112.635 ikasle, horietatik 53.497 emakumeak, 59.134 gizonak eta 4 beste batzuk. Deialdiak ez du inolako eraginik generoaren ikuspegitik, laguntzak zenbait baldintza betetzearen arabera ematen dira, hala nola errenta-maila eta maila akademikoa.

Ebazpena:

Banakapena	2023-24 ikasturtea
Eskola-materiala	87.165
kuota	333
Jantokia	51.420
Oinarrizko beka	13.755
Zenbateko aldakorra	16.873
Errenta zenbateko finkoa	5.784



Bizileku zenbateko finkoa	43
Bikaintasun akademikoa	3.489
HLBP (Berreziketa)	11193
Guztira	190.055

2024ko ekitaldiko aurrekontua % 98,33a betearazi da: alde batetik, 2023-24 ikasturteko deialdiko zati bat finantzatzeko eta, bestetik, 2024-25 ikasturteko deialdiko beste zati bat.

2024-25 ikasturteko deialdia bukatu gabe dago: zati bat ebatzi eta finantzatu da 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, eta ebatzi gabe dagoena 2025eko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikasle onuradunak	120.000	112.635
Laguntza kopurua	190.000	190.055



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garraiatzeko banan banako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntza sailburuarena, Haur Hezkuntzako lehen zikloko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Oinarrizko Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako hirugarren mailako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleentzat eskola-garraiorako banakako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, 2023-2024 ikasturterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira eskola-garraiorako banakako esleipenak 2023-2024ko ikasturterako, maila hauetan ari diren ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta erdi-mailako heziketa-zikloak.

Ikasleen garraiorako banan-banako dirulaguntzen deialdiaren behin betiko Ebazpena. 2023/2024 ikasturtea. (ohikoa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Haur Hezkuntzako lehen zikloko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak garraiatzeko banakako dirulaguntzetarako deialdia egiten da, Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren zerbitzura egokitzen ez diren premiak dituzten ikasleen eskola-garraiorako banakako laguntzak emateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdi honekin lortutako eragin soziala oso garrantzitsua da, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen joan-etorrien gastuak finantzatzeko aukera ematen baitu. Horrela, baldintzapen ekonomikoa ez da oztopo hezkuntzan sartzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Laguntza kopurua	4.000	1.916



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxe pribatuetarako dirulaguntzak iragartzen baitira, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko, kontuan izanik datozen urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxe pribatuetarako dirulaguntzak iragartzen baitira, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko, kontuan izanik datozen urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela.
Emate - ebazpenak banakakoak dira eta Tramitagunean erregistratuta daude

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

a) Irakasleak birkokatuz enpleguari eustea.

2023-2024 ikasturtean itundutako ikasgelak gutxitzearen ondorioz lanpostua galtzen duten irakasleen antzintasuna ordaintzea, betiere birkokatzeari ekiten bazaio, eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak, birkokatzea ezinezkoa denean.

b) Irakasleen plantilla gaztetzeko, txanda-kontratuari lotutako erretiro partzialaren bidez.

Ugazaben kuotaren gainkostuak Gizarte Segurantzari ordaintzea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdi honekin honako emaitza hauek lortu dira:

-Enplegua mantentzeko diruz lagundutako irakasleak, kalte-ordainei dagokiona: 12 (12 emakume)

-Plantilla gaztetzeko diruz lagundutako irakasleak: 145 (95 emakume eta 54 gizon)

2024ko aurrekontuaren exekuzioa deialdi ezberdinetarako honako hau izan da:

DEIALDIA	AURREKONTUA	EMAITZA
2020-2021	510.000,00 €	717.914,11€
2021-2022	3.300.000,00 €	1.381.968,83€
2022-2023	3.689.706,00 €	1.659.446,77€
2023-2024	6.782.556,00 €	0€



Deialdiak, funtsean, ikastetxe pribatu itunduetan plantillak gaztetzen lagundu du, kontratazio mota horiek erretiro partzialen aurrean ikastetxeei eragiten dieten gainkostua diruz lagunduz, eta, horrela, irakasle berriak kontratatzen lagunduz.

Bestalde, datuak aztertu ondoren, ez dagoela eraginik genero ikuspegian ohartzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Irakasle- Kopurua	18	12
Txanda-kontratuari lotutako erretiro partzialak	163	145



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kooperatiba edo fundazio baten titulartasuna duten itunpeko sareko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak (HEZKOOP-2024)

2.- Araua

AGINDUA 2024ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, kooperatiba edo fundazio diren itunpeko sareko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Hezkoop-2024)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA 2024ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, kooperatiba edo fundazio diren itunpeko sareko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Hezkoop-2024)

Kooperatiba edo fundazioaren titulartasuna duten itunpeko sareko ikastetxeetako inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzak iragartzen duen EBAZPENA (Hezkoop-2024)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Irakaskuntzako kooperatibak gizartean parte hartzeko tresna bat dira, ikastetxeen erakunde titular horien alderdi espezifiko eta bereizle bat markatzen duena, beren izaera dela-eta irabazi-asmorik ez dutenak. Era berean, Fundazioaren figura juridikoaren pean eratutako ikastetxeek interes orokorrerako balio dute. Ikastetxeen titular diren kooperatibak eta fundazioak ahalegin finantzario handia egiten ari dira beren eraikinak eta instalazioak legeriaren eskakizunetara egokitzeko, azken urteotan aldaketa nabarmenak izan baititu legedi horrek.

Errealitate horren jakitun, Sail honek, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak erabiliz, ikastetxeek jasaten duten finantza-karga arintzen lagundu nahi du, eta, aldi berean, hezkuntza-jarduera Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hezkuntza Bereziko mailetako ikasleei eskaintzen zaien irakaskuntzaren kalitatea hobetzen lagunduko duen ingurune batean gauzatzen lagundu nahi du.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

LH	Ikastetxe zkia	Eskabide kopurua	Onartutako dirulaguntza	%
Araba	4	7	2.940.479,57 €	12,6849507
Bizkaia	28	67	11.582.035,64 €	49,9638057
Gipuzkoa	23	42	8.658.336,32 €	37,3512436
Guztira	55	116	23.180.851,53 €	100,00

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikastetxeak	50	55
Eskabide kopurua	100	116
Dirulaguntza	24.000.000 €	23.180.851,53 €



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ELEANIZTASUNERANTZ: proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan.

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntza-deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntza-deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean.

EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzen deialdia ebazten duena, 2024- 2025 ikasturtean Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzera bideratutako hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak finantzatzea. Proiektu horietan unibertsitatez kanpoko irakasleek parte hartzen dute, prestakuntza-zikloek izan ezik, eta itunpeko sareko ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetan egiten dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiari esleitutako aurrekontu-zuzkidura, guztira, 1.332.000 eurokoa da (444.000 euro 2022ko ekitaldirako eta 888.000 euro 2023ko ekitaldirako). Aurkeztutako proiektuen balorazioak egin ondoren, zenbateko bat esleitzen da, proiektuen baremazioaren arabera. Esleipen hori kontuan izanda, elkarteei esleitu zaien zenbatekoa 1.198.780,51 €koa izan da.

Itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei zuzenduta dago deialdia. Parte hartzen duten ikastetxeak eta irakasleak, elkarte/federazio bakoitzeko, taula honetan jasotzen dira:



	ELKARTUAK		PARTEHARTZAILEAK	
	Zentroa	Irakaslea	Zentroa	Irakasleak
Guztira	282	11.846	169	8.328

Generoari dagokionez, asmoa da proiektuek generoaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea, pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredu bat lortzeko, estereotipoak eta rolak alde batera utzita, hezkidetzako proiektuak egitea sustatuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspen	Emaitza
Proiektu eleaniztunak itunpeko ikastetxeetan, A modalitatea	136	102
Proiektu eleaniztunak itunpeko ikastetxeetan, B modalitatea	28	42



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazen deialdia, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleei zuzendua

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko urriaren 11koa, Hezkuntza sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzaren diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko urriaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzaren diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.
Hizkuntza-ikastaroak atzerrian. 2024ko uda. DBH eta Batxilergoa. Deialdiaren behin-betiko ebazpena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2024ko udan Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Irlandan, hizkuntza-ikastaroak egiteko 532 plaza iragarri ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin finantzatutako ikastetxeetan matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. Mailetako ikasleentzat.

Lehiaketa horretan, Erresuma Batuari zegozkion plazei beste 4 plaza gehitu zitzaizkien; 2023-2024ko deialdian, DBHko 2. mailako ikasleen Matematika-olinpiadako lehen lau irabazleentzat izan zirenak. Beraz, plazen azken kopurua 536 da.

Egonaldien kostuen zati bat Hezkuntza Sailak finantzatzaren du, eta beste zati bat ikasleek. Egonaldian parte hartu zuen ikasle bakoitzari ordaintzea zegozkion zenbatekoa 140 eurokoa zen, ikaslea 1.tartekoa bazen, eta 560 eurokoa ikaslea 2.tartekoa bazen. 1.ko tartean zeuden aurreko ikasturterako "Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta- laguntzak" deialdian ikasleak beka lortu bazuen.

Eskainitako plaza bakoitzak honako kontzeptu hauek barne hartzen ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetatik egonaldia egingo den herrirainoko joan-etorriko bidaia, bidaia-asegurua, matrikula eta joango diren hizkuntza-ikastaroko ikasmateriala, ostatua, mantenua eta ikastaroa emango den zentzora iristeko hiri-garraioa.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako 532 plazak, lurralde historiko eta herrialdearen arabera, honela banatu ziren:

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Ikasle kopurua	Zenbateko guztira	Ikasle kopurua	Zenbateko guztira	Ikasle kopurua	Zenbateko guztira
Ingelesa Irlandan	21	37.044 €	63	109.872 €	114	198.876 €
Ingelesa Erresuma Batuan	22	39.062 €	96	169.116 €	146	257.626 €
Frantsesa Frantzia	5	7.630 €	15	20.370 €	30	44.100 €
Alemana Alemanian	7	10.990 €	3	5.010 €	10	16.000 €
Guztira LH	55	94.726 €	177	304.368 €	300	516.602 €

Gastua guztira	915.696 €	Gastua guztira (olinpiada matematikoa kontuan hartuta)	923.740 €
Ikasle kopurua guztira	532	Ikasle kopurua guztira (olinpiada matematikoa kontuan hartuta)	536

Genero-ikuspegiari dagokionez, ez du eraginik beka honetan. Beka emateko lehen irizpidea ikasleen nota akademikoaren arabera da. Berdinketa ematen denean kasuetan, 1. tarteko ikasleen artean, haien familien errentarekin hausten da, eta 2. tarteko ikasleen kasuan, zozketa egiten da.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikasle-onuradunak	536	536



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

STEAM: sustapen eta bokazio zientifiko-teknikoak itunpeko ikastetxeetan

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuentzat, 2024-2025 ikasturtean STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak garatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuentzat, 2024-2025 ikasturtean STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak garatzeko.

EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 28koa, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2024ko ekainaren 4ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2024-2025 ikasturtean STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak finantzatzea itunpeko ikastetxe pribatuei, bi helbururekin: hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea hezkuntza-arlo guztietan, eta bokazio eta asmo profesionalak inspiratzea STEAM eremuan, arreta berezia jarritz emakumezko ikasleei

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024-25 ikasturteko deialdirako aurrekontu-zuzkidura, guztira, 350.000 eurokoa izan da. Esleitutako azken emaitza, lurraldeka banakatuta, eta proiektu bat onartu zaien ikastetxeen kopurua eta emandako dirulaguntza kontuan hartuta, honako hau izan da:

Lurralde	Aurkeztutako eskaerak	Ukatutako eskaerak	Onartutako eskaerak	Guztira
ARABA	14	4	10	28.028,00
BIZKAIA	61	11	50	142.797,59
GIPUZKOA	43	8	35	97.861,74
EAE	118	23	95	268.687,33



Proiektuek genero-berdintasuna sustatu behar dute, eta, horretarako, genero-ikuspegia txertatu behar dute rolen berdintasunezko banaketaren bidez, zientzien eta ingeniartzaren eremuko lanbideei lotutako estereotipoak ezabatuz eta pertsona guztien berdintasunezko garapena ahalbidetuko duten espazioak sortuz. Era berean, proiektuek jasangarritasun-irizpideak kontuan hartu beharko dituzte jarduera pedagogikoak garatzean. Bi gai horiek jasota daude eskabideak barematzeko irizpideetan, deialdiaren I. eranskinean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
STEAMeko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak	104	95



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itunpeko sareko ikastetxeei eta unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten elkarte eta federazioei zuzendutako deialdia, 2024-2025 ikasturtean "Eskola Adimentsua" programa garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntza-deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko irailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdia egiten baitzaie itunpeko sareko ikastetxeei eta unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten elkarteei eta federazioei, «Eskola Adimentsua» izeneko programa garatzeko 2024-2025 ikasturtean.

BEHIN BETIKO EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, itunpeko sareko ikastetxeei eta unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten elkarteei eta federazioei 2024-2025 ikasturtean "Eskola Adimentsua" izeneko programa garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia ebazten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu nagusia da beharrezkoak diren mekanismoak eta prozesuak abian jartzea funts publikoekin finantzatutako ikastetxeetako irakasleei eta ikasleei pentsamendu konputazionalarekin eta programazioarekin lotutako konpetentzia digitalen garapena zabaltzeko eta bideratzeko.

Programak bi jarduketa mota aurreikusten ditu:

- 1. jarduketa: programazio-ekipamendua eta robotika hornitzea.
- 2. jarduketa: Irakasleei laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, 2.300.000 euroko zuzkidura ezarri da deialdirako, eta 3.000.000 euroko konpromiso-kreditua 2025eko ekitaldian. Eskabideak aztertu ondoren, 4.834.682,81 euroko laguntzak eman dira (2024ko ekitaldiari egotzitako 2.078.913,62 € eta 2025eko 2.755.769,21 €).



Proiektuen helburu ere bada genero-berdintasuna eta edozein estereotiporen ondoriozko desberdinkeria gaindituko dela bermatzea, eta, aldi berean, hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa sustatzea, ikasleak interkonektatutako mundu jasangarri batean herritar arduratsuak izan daitezen prestatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspen	Emitza
Parte hartzen duten itunpeko ikastetxeak	231	233

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Zero eta hiru urte bitarteko haur-escolen titular diren toki-korporazioentzako 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024 urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-escolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2024-2025 ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2024 urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-escolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2024-2025 ekitaldirako.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-escolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea da. Ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta sare publikoan hezkuntza-etapa horiekin bat datozen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko aukera ematea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Haur-escolak mantentzeko gastuan laguntzea eta familien ekarpenak murriztea izanik helburua. Diruz lagundu da talde bakoitzaren mantentze-kostuaren % 60a, 0 – 1 eta 1 – 2 urteko adin-tarterako, eta % 100, 2 – 3 urteko adin-tarterako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Udaletxeen kopurua	11	11
Ikasleen kopurua	950	957

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Titulartasun pribatuko haur hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako 2024-2025 ikasturterako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako laguntzen deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urriaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako laguntzen deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Titulartasun pribatua duten 0-3 urte bitarteko haur-eskolak finantzatzea. Itunpeko ikastetxe pribatuetan, kanpoan geratuko da Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren kurtsoa (bi urteko gela).
Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak eskolaratzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Titulartasun pribatuko 0-3 urteko haur-hezkuntzako eskolak mantentzeko gastuen laguntzea.
- Familien kuotak murriztea eta homogeneizatzea.
- Familia eta lana uztartzen lagunduko duten zerbitzu zabala eskaintzea.
- Dagoen eskaintza finkatzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikastetxeen kopurua	200	195
Ikasleen kopurua	5.500	5.024

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Helduen hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteei (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioei, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibei

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita laguntzak emateko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteei (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioei, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza kooperatibei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404078e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500940e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honek familien parte-hartze aktiboa bilatzen du, bai zuzenean, baiosatzen duten elkarte-figuren bidez, eta hezkuntza-komunitateak ikastetxearen jardueran duen inplikazioa handitzen den heinean, haren hezkuntza-proiektua indartu egiten da.

Helburua da familien parte-hartzea eta lankidetzat sustatzea, beren elkarte-figuretan, jarduera osagarriak antola ditzaten, eta jarduera horiek koherenteak izan behar dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin. Prestakuntza-jarduera horiek, ikuspegi inklusibo eta hezkidetzaille batetik, ikasleen osasun emozionala eta bizikidetzat positiboa hobetzera bideratuko dira, bai eta jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan eta aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien gaitasun digitala hobetzea (gailu mugikorrak zuzen eta egoki erabiltzea barne), eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatuz ere, ikasleen hezkuntza-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzeko helburu komuna lortzeko.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024rako zenbatekoa 1.033.000 eurokoa izan zen, eta aurreko urteetan bezala, aurrekontua osorik agortu da. 2024ko deialdian 477 guraso-elkarteri, 39 kooperatibei eta 11 federaziori eman zitzaizkien laguntzak. 2024ko deialdian ez dago dirulaguntzen programak genero-ikuspegian duen eragina ebaluatzea ahalbidetzen duen adierazlerik. 2025eko deialdian testua aztertuko da genero-ikuspegian duen eragina ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak sartzeko.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
AMPAk	515	477
Federazioak eta konfederazioak	15	11
Kooperatibak	50	39



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udal musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita udal-titulartasuneko musika-ikastegiak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404077e.shtml>

EBAZPENA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500639e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua musika-irakaskuntzako udal-zentroen 2023-2024 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzea da:

- Irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako irakaskuntzak ematen dituzten udal-titulartasuneko kontserbatorioak.
- Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak araututako udal musika eskolak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 45 udalek, musika-eskolen edo kontserbatorio profesionalen titularrek, parte hartu dute zentro horiek finantzatzen laguntzeko deialdian.

45 udalak onartuak izan dira (egia esan, 49 musika-zentroren titularrak dira, 4 udalek musika-eskola baten eta kontserbatorio baten titularrak direlako). Zentro horietan 21.646 ikasle matrikulatuta egon dira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak emandako datuen arabera: 21.120 ikasle arautu gabeko irakaskuntzan eta 526 ikasle irakaskuntza arautuan. Ikasle kopuruak pandemiaren aurreko zifren azpitik jarraitzen du (19/20 ikasturtean baino 1.470 ikasle gutxiago), nahiz eta 306 pertsonatan igo den aurreko deialdiarekin alderatuta (22/23 ikasturtea).

Irakasle kopuruari dagokionez, 1025 irakasle izan dira. Kontuan izan behar da ikastetxe horietan, irakaskuntza espezializatu horien ezaugarriak direla eta, oso ohikoa dela irakasleak orduka kontratatzea, batez ere ikastetxe txikienetan. Beraz, datu horrek ez du esan nahi irakasle guztiek dedikazio osoa dutenik. Irakasle ez diren langileei dagokienez, 218 pertsona.

Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa musika-zentro horiek eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuen estandarrari buruzko modulu ekonomikoekin kalkulatu da. Gainera, emandako laguntzaren zenbatekoak

ezin du, inola ere, justifikatutako gastuaren herena gainditu, eta, beraz, udal batzuen laguntza murriztu da muga horren ondorioz.

Udal-titulartasuneko musika-zentroek 51.967.051,36 euroko aurrekontua aurkeztu dute guztira, eta jasotako dirulaguntzen guztizkoa, aurreko paragrafoan aipatutako dirulaguntzak kalkulatzeko irizpideak aplikatu ondoren, 13.642.781,02 eurokoa izan da (2025eko urtarrilaren 27eko Ebazpena, otsailaren 10eko EHAA). Oro har, finantziazio-maila % 29,77koa da, nahiz eta udalen zati handi bat % 33ra iristen den (26 eta beste 2 gehiago % 30etik). Hau da, udalen % 62k ia lortu du ETELek Eusko Jaurlaritzari ematen dion kuota, udal-titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeak finantzatzeko laguntzeko.

Begi-bistakoa da musika-eskolek euskal udalerrietako bizitza kultural eta artistikoari egiten dioten ekarpena (are esanguratsuagoa udalerrri txikienetan), ez bakarrik musika-prestakuntza eta praktikarako sarbidea errazten dielako pertsona askori (adina, jatorria edo prestakuntza-maila baldintzatu gabe), baizik eta, nolabait, herritar guztiak inplikatzeko dituelako –nahiz eta eskolaren erabiltzaile zuzena ez izan–, herritarrek jasotako prestakuntzaren etekinean parte hartzen dutelako, eta hori nabarmen agertzen da herri eta hiri bakoitzeko kultura-jardueran. Egia esan, eskola horien jardueraren proiektio soziala oso nabaria da; izan ere, sarritan, parte aktiboa izaten dira komunitateko herri askoren jai herrikoietan eta kultur programetan.

Kontuan izan behar da musika-irakaskuntzako ikastetxe horiek (titulartasun pribatuetako zentroekin batera) 33.000 ikasle baino gehiago hartzen dituztela, Eusko Jaurlaritzaren mendeko hiru kontserbatorioak hartzen dituzten ikasleek baino 25 aldiz gehiago (1.300 ikasle inguru). Hartzen dituen ikasle kopurua kontuan hartuta, eragin soziala zailentzen gabea da.

Bestalde, programa honek ez du genero-ikuspegiarekin edo natura-ondarearen kontserbazioaren defentsan jarduten duen aldagai espezifikorik, onuradunek 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginari dagokionez bete behar dituzten baldintzez haratago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Udal-titulartasuneko musika-zentroen batez besteko finantzaketa	33%	29,77%
Zentro kopurua	49	49
Irakasleak	1000	1.025
Ez Irakasleak	200	218
Ikasle ofizialak	21.500	21.646



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

%25etik gorako udal-finantzaketa duten eta ez duten Musika-Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatuentzako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Musika Ikastegi Pribatuak eta Musikako Zentro Baimendu Profesionalak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404076e.shtml>

EBAZPENA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500638e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak araututako titulartasun pribatuko musika-eskoletarako eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako irakaskuntzak ematen dituzten zentro baimenduetarako dirulaguntzen deialdia egitea, 2023-2024 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 45 parte-hartzaile izan dira musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuetarako deialdian, eta bi dirulaguntza lerro izan ditu:

a) % 25eko edo hortik gorako udal-finantzaketa duten zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 26 musika-zentro pribatuetako titularrek parte hartu dute.

b) Udal-finantziatorik gabeko zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 19 musika-zentro pribatuetako titularrek parte hartu dute.

45 eskatzaileak onartuak izan dira (egia esan, 49 zentroren titularrak dira; izan ere, horietako 4k bi ikastetxeren titularrak dira, musika-eskola batena eta musika-zentro profesional baimendu batena). 2.728.810 euroko laguntza jaso dute guztira, eta, guztira 12.205.376,31 euroko gastuak justifikatu dituzte; hau da, finantzaketa-maila orokorra %20,41koa izan da. Egia esan, udal-finantzaketarik gabeko zentroei zuzendutako dirulaguntza-lerroak zuzkidura eskasa du, eta datu orokorra baldintzatzen du (izan ere, udal-finantziazioa duten zentroetarako dirulaguntzen lineako finantziazio-maila % 28ra iristen da).

13.592 ikasle matrikulatu dituzte guztira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak ematen dituen datuen arabera: 13.288, arautu gabeko irakaskuntzan, eta 304, irakaskuntza arautuan. Igoera nabarmena izan da (% 7,90), eta pandemiaren aurreko zifretara iritsi da.

Irakasle kopuruari dagokionez, 615 irakasle izan dira. Kontuan izan behar da ikastetxe horietan, irakaskuntza espezializatu horien ezaugarriak direla eta, oso ohikoa dela irakasleak orduka kontratatzea, batez ere ikastetxe txikienetan. Beraz, datu horrek ez du esan nahi irakasle guztiek dedikazio osoa dutenik. Hori izan daiteke Plan Estrategikoan jasotako aurreikuspenarekiko desbideratzearen azalpena.

Irakasle ez diren langileei dagokionez, 96 izan dira, aurreikusitakoa baino pixka bat gutxiago.

Finantzaketa-irizpideak iazkoen berberak izan dira, eta, ondorioz, laguntzen egonkortasuna lortu da.

Udal-finantziarioa duten zentroyen artean 8.021,91 ordu finantzatu dira, eta udal-finantzaketarik gabeko zentroyen artean 2.534,35 ordu.

Udal-finantziarioa % 25ekoa edo handiagoa duten ikastetxeek 9.000.363,09 euroko aurrekontua aurkeztu zuten guztira. Deialdia arautzen duen Aginduaren III. Baremoan adierazitako zuzenketa-irizpidea aplikatu ondoren (irakasle ez diren langileen, ekipamenduaren eta funtzionamenduaren gastuen batura aurrekontu osoaren % 25 izango da gehienez), aurrekontuen guztizkoa 8.917.011,21 eurokoa izan zen.

Guztira 2.383.810 €-ko laguntzak eman ziren (2025eko urtarilaren 27eko Ebazpena, otsailaren 10eko EHAA).

Batez besteko finantzaketa % 27,93koa izan zen, iaz baino ia hiru puntu gehiago; finantzaketa-maila aurrekontuaren % 33ra hurbiltzen ari da: 7 ikastetxe iritsi dira atal horretara eta beste 5 gehiago dezente hurbildu dira (% 30etik gora).

% 25eko edo hortik gorako udal-finantzaketarik gabeko zentroek 3.478.738,56 euroko aurrekontua aurkeztu zuten guztira. Deialdia arautzen duen Aginduaren III. Baremoan adierazitako zuzenketa-irizpidea aplikatu ondoren (irakasle ez diren langileen, ekipamenduaren eta funtzionamenduaren gastuen batura aurrekontu osoaren % 25 izango da gehienez), aurrekontuen guztizkoa 3.288.365,11 eurokoa izan zen.

Guztira 345.000 euroko laguntzak eman ziren (2025eko urtarilaren 27eko Ebazpena, otsailaren 10eko EHAA).

Batez besteko finantzaketa % 10,12koa izan zen, iazkoa baino pixka bat handiagoa, eta ikastetxe batean ere laguntza ez da aurrekontuaren % 33ra iritsi.

Begi-bistakoa da musika-eskolek euskal udalerrietako bizitza kultural eta artistikoari egiten dioten ekarpena (are esanguratsuagoa udalerrri txikienetan), ez bakarrik musika-prestakuntza eta -praktikarako sarbidea errazten dielako pertsona askori (adina, jatorria edo prestakuntza-maila baldintzatu gabe), baizik eta, nolabait, herritar guztiak inplikatzeko dituelako –nahiz eta eskolaren erabiltzaile zuzena ez izan–, herritarrek jasotako prestakuntzaren etekinean parte hartzen dutelako, eta hori nabarmen agertzen da herri eta hiri bakoitzeko kultura-jardueran. Egia esan, eskola horien jardueraren proiektio soziala oso nabaria da; izan ere, sarritan, parte aktiboa izaten dira komunitateko herri askoren jai herrikoietan eta kultur programetan.

Kontuan izan behar da musika-irakaskuntzako ikastetxe horiek (titulartasun pribatueto zentroyekin batera) 33.000 ikasle baino gehiago hartzen dituztela, Eusko Jaurlaritzaren mendeko hiru kontserbatorioak hartzen dituzten ikasleek baino 25 aldiz gehiago (1.300 ikasle inguru). Hartzen dituen ikasle kopurua kontuan hartuta, eragin soziala zalantzarik gabekoa da.



Bestalde, programa honek ez du genero-ikuspegiarekin edo natura-ondarearen kontserbazioaren defentsan jarduten duen aldagai espezifikorik, onuradunek 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginari dagokionez bete behar dituzten baldintzez haratago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Zentro pribatuen batezbesteko finantziazioa (udal-finantzaketa duten eta ez duten)	22%	20,41%
Zentro kopurua	51	49
Irakasleak	650	615
Ez Irakasleak	100	96
Ikasle ofizialak	12.000	13.592



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazak sortzea.

2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko Hezkuntzako Sailburuaren martxoaren 19ko Agindua, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, martxoaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU).

EBAZPENA, 2024ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Haurreskolak Partzuergoarekin hitzartutako udalei laguntzak emateko deialdia egitea da, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean sortutako titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko.

